

Presoek asko eskertzen dituzte ikastaroak

m amen eta Mertz Larratxo auzoko Ostadar Emakume taldeko kideak dira. Bi emakume hauek Martuteneko espetxean dauden emakumeen egoera hobetzen saiatzen dira.

Bi emakume hauek gustoz egiten dute lana. Duela aste batzu, beren ikasle espetxeratuek gartzelan egindako lanen erakusketa egin zuten Loiolako Kultur Etxean. Erakusketa honetatik aipatzekoa da manteleriek izan duten arrakasta.

ZER ERAKUSTEN DIEZUE MARTUTENeko PRESOEI?

Emakumeekin baka-rik egoten gara eta bati-pat eskulanak egiten ditugu. Ikastaroaren barruan bordatzen eta gurutze puntua egiten erakusten diegu eta hotzean egindako esmalteak, oleoak, egurrez egindako kromoentzako kutxak, makramea eta larrua lantzen ditugu.

NOLAKO ERANTZUNA IZAN DU KURTSOAK?

Beti ez da ikasle kopurua berdina izaten baina batzaz beste 35 bat ikasle izaten ditugu gurekin.

NOLA HARTZEN DUTE KANPOTARREK BERTAN KLASEAK EMATEA?



Ximon Kurtso hauetan irakasle izateak lan handia eskatzen du, alde batetik irakasle lana, ikastaro bera irakatsi behar duzulako, sikologo lana ere bai eta kalea eta presoaren arteko bitartekari izatera ere iristen zara. Honek asko nekutzen du.

Kontutan izan behar da soberan duten gauza bakarra denbora dela eta konkretuki aisirako denbora eta hori aprobetxatzea gustatzen zaie, horretarako, ikastaro didaktikoak antolatzen dira eta hori asko eskertzen dute.

Bere aldetik onarpena %100koa da. Emakundek antolaturiko Lorategi eta antzerki tailerrek izugarriko arrakasta izan dute.

ASTEAN ZENBAT ALDIZ

JOATEN ZARETE GARTZELARA?

Begira asteen behin egiten dugu lan Martuteneko espetxean. Astelehenero bi ordu t'erdiko lana egiten dugu presoentzat. Gure kurtsuak ikastetxetako ikasturtearen antzerako iraupena izaten du: iraillean hasi eta ekainean amaitu.

NOLAKO HARRERA IZAN DU LOIOLAKO KULTUR ETXEAN EGINDAKO ERAKUSKETAK?

Donostiarrek oso ondo erantzuten diete horrelako

ekintzei. Batez ere mantel-ek atentzioa deitu dute, dena den esan beharra dago pinturak ere oso lan onak zirela. Batez ere bi pintura aipatu nituzke horietatik, batak ile luze-ko emakume bat deskribatzen digu barrotez beteriko lehio baten aurrean karraxika. Kuadro honek, Martuteneko gartzelako sarreran dagoen lehiatila ez erabiltzea salatzen du. Lehiatila honetara heltzea debekatuta dago, kalea eta barnearen arteko erlazioa mantentzen duen sinboloa litzateke.

Azkenik aipatu erakusketaren programaren portada izan den koadroa. Pintura horretan soka batetan jarririk kolore ezberdinetako pintza ugari agertzen da. Kuadroak erakutsi nahi dio donostiarrari preso emakumeek dirua ateratzeko egiten duten lana. Pintza bakoitzak eta kolore bakoitzak preso bat sinbolizatzen du beti ere gela barrutik ateko giltzaren zirrikitua ikusten delarik.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa.: 391267)

HIPER LARRATXO

• Opariak • Barruko Arropa • Tresneriak • Jostailuak • Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA